



ZIRRIBORROA

**2024KO MARTXOAREN 21EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko martxoaren hogeita batean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Puntu honi dagokion dokumentazioa ez da aurkeztu, beraz otsailaren 29ko akta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da bere onarpenerako.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- ONDASUN HIGIEZIN BATEN PARTAIDETZA ZATIEZINEN JABARI OSOA ESKURATZEKO LIZITAZIOAREN ESLEIPENA.-

Osoko Bilkurak, 2024ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, ondasun higiezin baten partaidetza zatiezinen jabari osoaren eskuratzea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez (zuzeneko erosketa), esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagokion klausula ekonomiko eta administratibo partikularren plegua onartu eta lizitazio deialdia egi-tea erabaki zuen.

Espedientea kontratatzailearen profilean jarri zen ikusgai 2024ko otsailaren 2an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean enpresa gonbidatu bakarra aurkeztu zen.

Gonbidatutako enpresa honako hau da:

- SUERTE DEL OLIVAR, S.L.



Gonbidatutako enpresaren eskaintza onartua izan zen.

Administrazio-dokumentazioa jasotzen zuen "A" gutun-azala 2024ko otsailaren 20-an, eguerdiko 12etan, ireki zen.

2024ko otsailaren 28an, eguerdiko 12etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, eskaintza ekonomikoaren dokumentazioa barne hartzen zuen "B" gutun-azala ireki zen.

Hau izan zen gonbidatutako enpresak aurkeztutako eskaintza:

ENPRESA	Proposamen ekonomikoa
SUERTE DEL OLIVAR, S.L.	233.817,27 €

Hau honela, kontratazio mahaiak SUERTE DEL OLIVAR, S.L.-ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Oso-ko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehena.- Ondasun higiezin baten partaidetza zatiezinen jabari osoaren eskuratzea SUERTE DEL OLIVAR, S.L.-ri esleitzea, BERREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAZAZPI euro ETA HOGEITA ZAZPI zentimoko (233.817,27 €) prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioan.

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea.

IV.- ITURGAITZAGAKO 4.E.L. BESTERENTZEKO LIZITAZIOAREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2023ko abenduaren 14an egindako batzaraldian, 6 H.J.A. – Iturgaitzaga-ko 4. E.L.n duen bere partaidetza hala nola Lazkao Lantzen S.A. udal elkarteak duena besterentzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean 2024ko urtarrilaren 5ean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko emandako epean proposamen bakarra aurkeztu da, Beizama S.A. merkataritza enpresak aurkeztutakoa.

Proposamenak baldintza pleguan jasotzen diren baldintzak betetzen ditunez, kontratazio mahaiak proposamen hau onartu egin zuen eta bere aldeko esleipen proposamena egin du.





Beizama S.A.k esleipena egin ahal izateko eskatu zaion behin betiko fidantza jarri du.

Beizama S.A.k egin duen proposamena ondorengo da:

- PR-4 lursaila erosteagatik: 660.100,00 €

Hau honela, eta gaia Hirigintza eta Ogasun batzorde informatzaileetan informatua izan ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Iturgaitzagako 4. E.L.ren besterentzea Beizama S.A.ri esleitzea, baldintza pleguan jasotako eta esleipendunak bere proposamenean eskainitako baldintzen arabera.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea, erabakia behar bezala bete dadin, hartutako erabakiari dagozkion gainerako zehaztapenak egin ditzan.

Hirugarrena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea

V.- UDAL-TITULARTASUNeko EKIPAMENDU-SISTEMA OROKORRAK HANDITZEKO ETA GAITZEKO LURZORUAK ESKURATZEKO LIZITAZIO DEIALDIA ESLEITU GABE UZTEA.-

2024ko urtarrilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Udal titulartasuneko ekipamendu-sistema orokorrak handitzeko eta gaitzeko lurzoruak eskuratzeko kontratazio espedientea eta lizitazio deialdia egitea onartu zen.

Lizitazio deialdia kontratatzailearen profilean 2024ko otsailaren 2an argitaratu zen, eta proposamenak aurkezteko ezarritako epean proposamen bakarra aurkeztu zen, Jose Javier Olano Irazabal eta Ignacio Olano Irazabalek aurkeztutakoa hain zuzen ere.

Dokumentazioa zerbitzu teknikoei bidali eta aztertu ondoren, aurkeztutako eskaintza irregularra dela adierazten duen txostena jaso zen, ez baitator bat lizitazioa arautzen duen pleguan ezarritakoarekin.

Horren guztiaren ondoren, kontratazio mahaiak espedientea esleitu gabe uzteko proposamena helarazi dio Osoko Bilkurari.

Hau honela izanik, Osoko Bilkurak, aho batez, Udal titulartasuneko ekipamendu-sistema orokorrak handitzeko eta gaitzeko lurzoruak eskuratzeko lizitazio deialdia esleitu gabe uztea erabaki du.

VI.- UDAL-TITULARTASUNeko EKIPAMENDU SISTEMA OROKORRAK HANDITZEKO ETA GAITZEKO LURZORUAK ESKURATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Udal honek interesa du bere titulartasuneko ekipamendu-sistema orokorrak handitu eta gaitzeko lurzoruak eskuratzeko.



Lazkaoko Udalak prozedura irekieraren bidez erosiko ditu lurrak, eta horretarako udal-teknikariak prestatu dute hura arautuko duen plegu ekonomiko-administratiboa. Plegu honen xedea da, indarrean dagoen udal-plangintzak urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan kokatuta egonik, plegu honen goiburuan adierazitako helburuei erantzuteko ezauzgarri egokiak dituzten lurrak eskuratzea, prozedura irekiaren bidez.

Lazkaoko Udalaren 2024. ekitaldiko aurrekontuan 660.000,00 €-ko aurrekontu-partida ageri da plegu honek arautzen dituen lurzoruak erosteko.

Hau guztia honela, eta ogasun batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, udal titulartasuneko ekipamendu-sistema orokorrak handitzeko eta gaitzeko lurzoruak eskuratzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia bigarren aldiz egitea erabaki du.

VII.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-PROGRAMA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udalaren Etxeko Laguntza Programaren zerbitzua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, eta Gizarte Zerbitzuen batzordea hala nola Ogasun batzordea informatuak izan direlarik, bere onarpenera jarri da Udal Osoko Bilkura honen aurrean.

Lehiaketa honen datu esanguratsuenak honako hauek dira:

- Lizitazio oinarria den orduaren prezioa astelehenetik larunbatera:
 - 2024 urtea 28,03 euro BEZik gabe.
 - 2025 urtea 30,83 euro BEZik gabe.
 - 2026 urtea 33,26 euro BEZik gabe.
 - 2027 urtea 34,96 euro BEZik gabe.



- Igande eta jaiegunetako arreta-ordua, lanegunetako ordua baino %30 altuagoa izango da.
- Urteko aurreikusitako orduen kopurua 18.168koa da.
- Kontratuaren epea: 2 urte, gehi urte bateko luzapen posible bat.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio konforme daudela langileen baldintzak hobetzearikin, baina ez zaiela iruditzen biderik egokiena hori denik. Eredu honekin beti irabazten aterako dena enpresa izango dela. Ez dute gogoko eredu hori eta iruditzen zaie beste sistemaren bat bilatu behar dela zerbitzu hori emateko.

Horretarako, datozen 2 urteak izango dituztela, kontratuak irauten duen bitartean, eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak izango dituztela gai hau lantzeko eta sistema berriak



ukitzeko, horren beharrezkoa den zerbitzu hau ematen jarraitzeko. Beren aldetik, lankidetzaz eskaintzen dute elkarrekin lan egiteko. Beren botoa abstentzioa izango da.

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentziorekin (EH Bildu), honako erabakiak hartu ditu:

LEHENA.- Berriazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Kontratazio espedientea onartzea, aurrekontuaren dagokion partidaren gain gastua onartu eta lehiaketa ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea, iragarkia Kontratazailearen Profilean eta baita Europako Komunitateen Egunkarian ere argitaratuz.

VIII.- LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA DIRUZAINAREN ORDAINSARIAK EGUNERTZEKO.-

Lazkaon, 2024ko martxoaren 14an egindako Ogasun Batzordean, Udal honetako Diruzain postuaren destino maila osagarria eta berriazko osagarria izan ziren hizpide.

Diruzaintzaren arloan, Diruzainari dagozkion funtzioak eta gaur egun Udalaren lanpostu zerrendan onartuta dituen destino maila osagarria eta berriazko osagarria aztertu dira. Hau guztia ikusirik, gaur egun onartuta dagoena baina destino osagarri eta berriazko osagarri altuagoa aitortzea dagokiola kontsideratu da batzorde honetan, hauek gaur egun baxuegiak direla iritzita karguak dakarren erantzunkizunerako. Ondorio honetara iristeko, Lazkaoko Udalaren beraren lanpostu zerrenda aztertu da, baita tamaina berdintsua duten herrien eta inguruko herrien lanpostu zerrendak ere.

Ikusirik Udalbatzaren Osoko Bilkurak lanpostu bakoitzari maila bat esleitu behar diola, esleipen horrek ezin duela arbitrariora edo apetatsua izan, eta are gutxiago lanpostua betetzen duen edo beteko duen funtzionarioari buruzko kontsiderazio pertsonalez estalita egon. Aitzitik, lanpostu jakin bati maila jakin bat esleitzeko erabakiak arrazoitua izan behar du, eta, horretarako, kontuan hartu behar dira espezializazio-, erantzukizun-, eskumen- eta aginte-irizpideak, bai eta lanpostua kokatuta dagoen zerbitzuen lurralde- eta funtzio-komplexutasuna ere, apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 3. artikulua adierazten duen bezala.

Lanpostu bati destino osagarriaren maila jakin bat esleitzeko, EPOETBren 3. Xedapen Iragankorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen 9. artikulua eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 56. Artikulua aintzat hartu dira.

Kontuan hartuta lanpostuen zerrendak lanpostuen izena eta funtsezko ezaugarriak, lanpostuok betetzeko eskatzen diren baldintzak, lanbide-sailkapeneko taldea, atxikita dauden kidegoak eta eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak, destino-osagarriaren maila eta lanpostu bakoitzari esleitutako berriazko osagarria jaso behar dituela, EPOETBren 74. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 90.2 artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/22 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.



Kontuan hartuta lanpostuen zerrenda eta horren aldaketak onartzea toki-korporazio-ko organoei dagokiela, apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitako eskumen-banaketaren arabera, eta, lege horren 22.2.i) artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurari dagoki-ola lanpostuen zerrenda onartzeko eskumena.

Hau guztia ikusirik, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehena: Diruzainaren lanpostuaren destino-maila, 22tik 25era aldatzea.

Bigarrena: Diruzainaren lanpostuaren berariazko osagarria 21.367,93 €-tatik 23.000 €-tara aldatzea.

Hirugarrena: Lazkaoko Udalaren lanpostuen zerrendaren aldaketari hasierako onarpena ematea, honako zehaztapen hauen arabera:

- Lanpostuaren izena: Diruzaina.
- Taldea: A1
- Destino Osagarriaren maila: 25
- Berariazko Osagarria: 23.000 €

Hirugarrena: Erabaki hau jendaurrean jartzea, dagokion Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.3 artikuluaen arabera.

IX.- UDALERRI OSOA EREMU TENTSIONATU IZENDATZEAREN INGURUAN, EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Ormazabal zinegotziak (EH BILDU) ondorengo adierazpena irakurri du:

"Goian adierazitako udalerriko talde politikoko zinegotziok, eztabaidatzeko, eta hala balego-
kio, onesteko, MOZIO HAU aurkezten dugu:

Udal Gobernuak udalerrri osoa eremu tentsionatu izendatua izateko eskaera formala egin dezala

Zioa

2023ko abenduaren 14an Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak argitaratutako txostene-
an datu objektiboekin zehaztu zen jada Lazkaok betetzen dituela eremu tentsionatu izen-
datua izateko baldintzak. Txostenarekin batera protokolo bat argitaratu zen, eremu tentsio-
natuak izendatzeko Jaurlaritzak eta Udalek era koordinatuan egin beharreko pausuak ze-
hazten dituen. Protokoloaren arabera, orain Lazkaoko Udal Gobernuak eremu tentsionatu
izendatua izateko eskaera formala egin behar du, hainbat agiri eginez eta Jaurlaritzari bida-
liz. Hori dela eta, EH Bilduko udal taldeak mozio hau aurkezten du:

Mozioa





Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Jaurlaritzak tentsionatu izendatzeko prozesuak eskatzen dituen izapideak abiaraz ditzala, hala nola, diagnostikoa eta ekintza-plan zehatza.

1.- Memoria justifikatiboak jasoko du, etxebizitza-eskaintzaren eta -prezioaren egoera eta bilakaera, hala nola familien errentak eta haien zer ehuneko bideratzen duten etxebizitza gastuetara. Datu guztiak udalerriko auzo, auzune eta guneen arabera jasotzea komeni da

2.- Ekintza-plan espezifikoa, zeinetan Jaurlaritzak jada zehaztutako eremu tentsionatuan etxebizitzaren eskaintza eta eskaria orekatze aldera neurri zehatzak proposatuko diren, baita horiek gauzatzeko kronograma bat ere, 3 urtera begira.

3.- Guztia azterturik, ondorioek hala gomendatuko balute, bidera dezala Eusko Jaurlaritzara Lazkao tentsio handiko gune izendatzeko eskaera."

Alkateak dio astelehenean izan zutela mozio honen berri eta bertan jorratzen den gaia EH Bilduk lehen aldiz jarri duela mahai gainean. Ez Hirigintza batzordean, ez Ogasunean, ezta Gizarte Zerbitzuetako batzordean ere. Deigarria egiten zaie hiru-lau egun lehenago eta lanketarik egin gabe Osoko Bilkurara ekartzea.

Gaiaren sakontasuna eta konplexutasuna kontuan hartuta, EAJ-PNVko buruak, Naldaiz zinegotziak alegia, mozioa erretiratu eta dagokion batzordean lanketari heltzea proposatu ziela eta erantzuna ezezkoa izan zela.

Alkatearen hitzetan, etxebizitzaren egoerari buruzko azterketa burutzeko asmoa, ideia eta lehen urratsak hemanak ditu gobernu honek, Bilduren mozioa jaso aurretik. Proposamen eta aurrekontuak eskatuak daudela eta haien zain daudela. Beren ustetan ez dago txosten horren zain egon beharrik zer gertatzen den ikusteko, eta zera da: Lazkaon alokairuko etxebizitza bat topatzea lan zaila dela, hori garbi dagoela. Eskaintza benetan murrizta dela eta garestia eta Jaurlaritzak egindako azterketetan hori berresten dela.

Benetan gakoa eskaintza indartzea dela dio, etxe hutsak merkaturatu behar direla eta aztertu beharko dela zergatik dauden itxita etxe horiek eta zergatik ez dauden alokairuan. Horri heldu behar diotela. Etxebizitzaren legeak beren ustetan ez diola gai honi behar adina heltzen.

Eskatu den azterketa horrekin baieztatu beharko dela eremu tentsionatu izateko baldintzak betetzen direla eta oso posible dela baldintza horiek betetzea. Baina horiez gain azterketa horrek aztertu behar duela zerk eramaten gaituen egoera horretara.

Garbi izan behar dutela tentsionatu izendatzeak zer ondorio ekarriko dituen eta nahi ez dituzten zein ondorio sortu ditzakeen. Izan ere, beren ustetan, eremu tentsionatu izendatzeak badu beste alde bat ere. Eremu tentsionatu izendatzearekin dena ez dagoela konpondua.

Zalantzak sortzen dira, eremu tentsionatu izendatzeak ez ote duen eskaintza oraindik txikiagoa izatea ekarriko. Kezka dute erabaki hori hartzeak ez ote duen ekarriko alokairuan dauden etxebizitzaren jabeek, etxebizitza horiek merkatutik kentzea legeak behartutako prezioen esku-hartze hori saiheste aldera. Ez ote duen etxebizitza eskuratzea are eta gehiago zailduko, lehendik maizter direnentzat errentaren izoztea aringarri izan badaiteke ere,



maizter berriengan edo etxebizitza bila dabiltzan horiengan zer eragin sortuko ote duen, ez ote duten izango gero eta alokairu mugatuagoa eta txandakatze txikiagoa merkatuan, ez ote duen eragingo alokairuko etxebizitzaren merkatuak beltzera jotzea, etxejabeek legea aplikatzea saihestuz?

Alde onak badituela lege honek, baina badituela kontuan hartu beharreko eragin batzuk eta eztabaidatu eta aztertu beharrekoak direla uste dutela.

Mozio honi, sortzen dituen zalantzenatik eta aurkeztu duten moduagatik, ezezkoa emango diotela dio Alkateak, beren iritziz hori ez delako modua eta ez delako bidea.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) erantzun du aurrekoan hitz egin zutenean mozioaren mamiarekin ados zeudela esan zitetela, beraz ez dutela ulertzen mamiarekin ados egonik nolatan ematen dioten ezezkoa.


Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko 6 botorekin (EH Bildu) eta aurkako 7 botorekin (EAJ-PNV), mozioa baztertu du.

X. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA

